

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko urriaren 26tik azaroaren 1erako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/10/30

- Ebazpena, 2019ko urriaren 22koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den aurrezki kutxa eta erakunde finantzarioen sektoreko hitzarmen kolektiboaren akordio partziala. **2019-15580 xedapena - 5 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/10/29

- **GORTE NAGUSIAK. - Premiazko neurriak.**

- Ebazpena, 2019ko urriaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila 11/2019 Errege Lege-dekretuaren konbalidazio-akordioa. Errege Lege-dekretu horren bitartez premiazko neurriak hartzen dira denboraleek eta beste hondamendi egoera batzuek eragindako kalteak arintzeko. **2019-15485 xedapena - 1 or.**
- Ebazpena, 2019ko urriaren 22koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila 12/2019 Errege Lege-dekretuaren konbalidazio-akordioa. Errege Lege-dekretu horren bitartez premiazko neurriak hartzen dira Thomas Cook enpresa-taldearen kaudimenik ezak eragindako kalteak arintzeko. **Disposición 2019-15486 xedapena - 1 or.**

2019/10/30

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - Lanbatzordeak. -**
 - TMS/1066/2019 Agindua, urriaren 24koa, zeinaren bitartez aldatzen den TAS/667/2019 Agindua, ekainaren 5koa, Gizarte Segurantzaren sistemako iruzurrari aurka egiteko Behatokia sortzen duena. **2019-15577 xedapena - 3 or.**

- Ebazpena, 2019ko urriaren 22koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bitartez argitaratzen den Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren eta Ordainketa Erakundeen Espainiako Elkartearen artean informazioa trukatzearen inguruan sinatutako hitzarmenaren gehigarri aldatzailea. **2019-15578 xedapena - 5 or.**

2019/10/31

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA. - GIZARTE SEGURANTZA.** - TMS/1070/2019 Agindua, urriaren 24koa, 2019ko ekitaldirako kontingentzia arruntei dagokien Gizarte Segurantzako kotizazioaren oinarri normalizatuak finkatzekoa, ikatz-meatzaritzako erregimen berezian. **2019-15603 xedapena - 9 or.**
- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. - BABES ERRADIOLOGIKOA.** 601/2019 Errege Dekretua, urriaren 18koa, esposizio medikoa izan dezaketen pertsonen babes erradiologikorako erradiazio ionizatzaileak erabiltzea justifikatzeari eta optimizatzeari buruzkoa. **2019-15604 xedapena - 17 or.**

2019/11/01

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Dirulaguntzak.** - 628/2019 Errege Dekretua, urriaren 31koa, Espainian Nekazaritza Politika Erkidea ezartzeko eman ziren abenduaren 19ko 1075/2014 eta 1076/2014 Errege Dekretuak aldatzen dituen**.2019-15681 xedapena - 8 or.**
- **LURRALDE POLITIKAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. - Premiazko neurriak.** - 630/2019 Errege Dekretua, urriaren 31koa, zeinaren bitartez zabaltzen den denboraleek eta beste hondamendi-egoera batzuek eragindako kalteak arintzeko neurriak ezartzen dituen urtarrilaren 25eko 2/2019 Errege Lege-dekretuaren 7. artikuluan ezarritako neurrien aplikazio-eremua 2018ko urtarrilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra bitartean gertatu ziren hondamendi egoeretara. **2019-15682 xedapena - 6 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/10/31

- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.** - 164/2019 DEKRETUA, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa. **5022** xedapena - 4 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): [Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala](#)

2019/10/28

- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA.** - **Babes erradiologikoa.** 601/2019 Errege Dekretua, urriaren 18koa, esposizio medikoa izan dezaketen pertsonen babes erradiologikorako erradiazio ionizatzaileak erabiltzea justifikatzeari eta optimizatzeari buruzkoa. **21 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO